



ETXEBIZITZAKO
BEHATOKIA
OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA

PANDEMIAK EUSKADIKO ETXEBIZITZAREN SEKTOREAN IZAN DUEN INPAKTU SOZIALA

Bi urteko krisialdiaren lehenbiziko
balantzea



Aurkibidea

1. COVID-19aren krisiak enpleguan eta DSBEan izan duen inpaktua 4
2. Etxebizitza babestuen eskariaren bilakaeran krisiak izan duen inpaktua (2019-2021) 6
3. Hipoteka-betearazpenak eta maizter-botatzeak 9
4. Etxebizitza-politika publikoen erantzuna pandemiaren inpaktua dela eta 12
5. Ondorioak 16

Grafikoen aurkibidea


1. grafikoa. Euskadiko biztanleria landunaren bilakaera, 2019-2021 (milakoak eta aldaketa-tasak)	4
2. grafikoa. Euskadiko biztanleria landunaren bilakaera, sexuaren eta adin-tarteen arabera. 2019-2021 (milakoak eta aldaketa-tasak)	4
3. grafikoa. DSBEaren titular diren herritarren kopuruak izan duen bilakaera. 2019-2021	5
4. grafikoa. Etxebiden eskatutako etxebizitza babestuen kopurua (eskaera-espeditenteak). 2010-2021	6
5. grafikoa. 2019-2021 epean Etxebiden erregistratutako etxebizitza-eskaerak	7
6. grafikoa. Etxebiden eskatutako etxebizitza babestuen kopurua (eskaera-espeditenteak), erregimen-motaren arabera saillkatuta. 2010-2021	7
7. grafikoa. Etxebideko etxe-eskatzaileen batez besteko diru-sarrerak. 2019-2021	8
8. grafikoa. Jabetza-erregistroetan inskribatutako hipoteka-betearazpenak. 2019-2021	9
9. grafikoa. Hipoteka-betearazpeneko prozedurekin lotura duten maizter-botatzeak (2019-2021)	10
10. grafikoa. Hipoteka-betearazpenekin lotura duten maizter-botatzeak 10.000 biztanleko, autonomia-erkidegoka.....	10
11. grafikoa. Alokairu-kontratudunen maizter-botatzeak 2019-2021 epean.	11
13. grafikoa. Euskadin diruz lagundutako alokairuko parkearen ehunekoaren zenbatespena, laguntza-motaren eta gastu osoaren arabera. 2020	12
14. grafikoa. EGPOaren hartzaileak, lurralde historikoka. 2021	13
15. grafikoa. EGPOaren metatutako zenbatekoa, eurotan, lurralde historikoka.	13
16. grafikoa. EGPOaren bilakaera 2019-2021 epean	13
17. grafikoa. EPE-en bilakaera 2019-2021 epean.....	14
18. grafikoa. Alokairua ordaintzeko Gizarte Larrialdietarako Laguntzak. 2019-2020.....	14
19. grafikoa. Gaztelagun. Herritar onuradunak. 2019-2021	14
20. grafikoa. Eusko Jaurlaritzaren alokairurako COVID laguntzak. 2020-2021.....	15

1. COVID-19aren krisiak gizartean izan duen inpaktua: enplegua eta DSBEa

Funtsezkoa izan da sektore publikoa pandemiaren inpaktua leuntzeko. Faktore bereizgarria izan da hori 2008ko atzeraldi handiarekiko eta haren ondorioen iraupen luzearekiko. EAEko eta Espainiako Estatuko administrazio publikoek politika proaktiboa bultzatu dute, ABEEE-en eta beste zenbait tresnaren bidez; etxebizitzaren arloan, zehazki, indartu egin dira EAEko laguntza- eta prestazio sistema zabala eta Estatuko araudi-ekoizpen oparoa, zeinek ezkutu sozial bat arautu baitute egungo garai nahasiotarako.


Oinarri sendoa izan dira ABEEEak enpleguari eusteko. 2020ko martxoaren 5etik abenduaren 31ra, EAEko lau langiletik bat egon zen ABEEEn (218.991 lagun); hori dela eta, apenas murriztu den biztanleria landuna, eta 944.000 lagunekoa zen 2021eko azken lauhilekoan, 2019ko lauhileko berean baino % 0,7 txikiagoa.

1. grafikoa. Euskadiko biztanleria landunaren bilakaera, 2019-2021 (milakoak eta aldaketa-tasak)



Iturria: Eustat


2. grafikoa. Euskadiko biztanleria landunaren bilakaera, sexuaren eta adin-tartean arabera. 2019-2021 (milakoak eta aldaketa-tasak)



Iturria: Eustat

Ez daukagu, oraingoz, pandemiaren inpaktu soziala neurtzeko estatistika ofizialik. Hala eta guztiz ere, zeharkako adierazle batek dioskunez —EAEko DSBEa, diru-sarrerak bermatzeko azken aukera— ABEEE-en estaldura zabalari eta aurrerago zehaztuko dugun prestazio-sorta ugariari esker, ez da nabarmen hazi prestazio horren erabilera. **2019-2021 epean igo egin zen DSBEaren titularren kopurua, baina apalki (+% 3,2).**

3. grafikoa. DSBEaren titular diren herritarren kopuruak izan duen bilakaera. 2019-2021



Iturria: Lanbide

2. Etxebizitza babestuen eskariaren bilakaera krisiak izan duen inpaktua (2019-2021)


2017tik ari zen hazten Etxebiden erregistratutako herritarren etxebizitza babestuen eskaria.

Nabarmena izan zen 2017az geroztik etxebizitza babestuen eskaria Euskadin, eta hazten jarraitu du COVID-19aren krisiaren inpaktuaren ondoren ere.

2017ko joera-aldaketaren aurretik, 2010-2016 epean, jaitsiera handia izan zuen eskariak (86.896 eskaeratik 53.327ra, % 38ko

beherakada). Besteak beste, bi faktorek hauek eragin zuten eskariaren jaitsiera: Etxebideren 2012ko Agindua, zeinak etxebizitza alokatzera ala erostera behartzen baitzituen eskatzaileak, eta Atzeraldi Handiak, zeinak gizarteko talderik ahulenei eragin baitzien gogorkien, hots, Etxebiden erregistratuta daudenei.

4. grafikoa. Etxebiden eskatutako etxebizitza babestuen kopurua (eskaera-espeditenteak). 2010-2021



Oharra: 2005az geroztik Etxebideren etxebizitza-eskaeretatik kendu egiten dira BOE-en Erregistroan alta emanda duten errentarien izenak, Bizigune Programako etxebizitzaren errentarienak eta BOE-en zozketetan hautatu dituzten herritarrenak.


Iturria: Etxebide, Etxebizitzako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza.

Krisiaren eraginak ez du ekarri etxebizitza babestuen eskari-eritmoaren handitzerik: % 10 hazi da bi urteren buruan, hots, 70.000 eskaritik 77.000 pasatxora. Batez ere erosteko etxebizitzaren eskariak egin du gora epe horretan.

Pandemiaren inpaktua gorabehera, gora jarraitu du etxebizitza babestuen eskariak, Etxebiden izena emana duten eskatzaileenak: 70.179 eskatzaile 2019an, 77.054 2021ean. Beraz, %10eko igoera izan zuen eskariak bi urte eskasean.

Krisiaren inpaktua latza izan den arren, erosteko etxebizitza babestuen eskaria hazi da gehiena (+% 16,5), alokairuko etxebizitzaren eskaria halako bi baino gehiago (+% 7,6).

5. grafikoa. 2019-2021 epean Etxebiden erregistratutako etxebizitza-eskaerak



Iturria: Etxebide. Eusko Jaurlaritza


Eskatzaile gehienek alokatzeko etxebizitzak nahi dituzte: 2021ean, 100 eskaritik 78 izan ziren.

2021aren amaieran, alokatzeko etxebizitzaren eskariak jarraitzen du aurretik (ia 60.000 eskari; erosteko eskariak, 17.371).

2010ean bi aukerak eskatzen zituztenen kopurua (erosteko etxeak eta alokatzekoak) 2021ean, alokatzeko etxebizitzaren eskaria 2010ekoaren antzekoa izan zen (4.000 bat gutxiago 2021ean), bi erregimenak hautatu zituztenen eskariak kontuan izan gabe.

Atzera begiratuta, erosteko etxebizitzaren 2021eko eskaria 2010ekotik oso urruti dago (herena, apenas), kontuan hartu gabe—gainera—

6. grafikoa. Etxebiden eskatutako etxebizitza babestuen kopurua (eskaera-espeditentak), erregimen-motaren arabera sailkatuta. 2010-2021




Iturria: Etxebide, Etxebizitzako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza.

Pandemiaren ondoren, oso baxua izaten jarraitzen du alokatzeko etxebizitza babestuak eskatzen dituzten familien diru-sarreraren mailak.

Oso baxua da alokatzeko etxebizitza babestuak eskatzen dituzten Euskadiko herritar eta familia gehienaren diru-sarreraren maila. **2019tik, oso gutxi aldatu da maila; hori dela eta, jaitsi egin da alokairuko etxeak eskatzen dituzten familien erosteko ahalmena, 2021eko inflazio-mailaren**

eraginez. Hiru lurralde historikoetan, urtean 14.000 euroren mailatik oso behera dago diru-sarreraren maila (bakarrik Gipuzkoan gaintitzen du batez besteko mailak 13.000 euroren langa; Bizkaian eta Araban, berriz, 12.000 euroz behetik dago, eta maila horretara jaisten da batezbestekoa). Erosteko etxebizitzaren eskariari dagokionez, oso apala izan da eskatzaileen batez besteko diru-sarreraren igoera; aldiz, nabarmen handiagoa da alokairuko etxeen eskatzaileena, zeina 23.000 eurotik gora baitago.

7. grafikoa. Etxebideko etxe-eskatzaileen batez besteko diru-sarrerak. 2019-2021



Iturria: Etxebide, Etxebizitzako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza.

Bestalde, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak hainbatean behin egiten duen ebaluazioaren arabera, **alokairu libreko erregimenean bizi diren familiek egiten dituzte alokairuko etxebizitza babestuetarako eskari gehienak**, etxe babestu baten esleipendun suertatuz gero etxea ordaintzeko gastua murriztu egingo baitute. Etxebizitza-politikek berehalako konponbidea aurkitu behar izan diote egoera horri, pandemiaren inpaktua dela eta. Izan ere, pandemia hasi aurretik ere familia horietako askok jasotzen zuten jada EGPOa, edo etxebizitza bat izateko eskubide subjektiboaren onuradun ziren, edo Eusko Jaurlaritzak pandemia-garaian alokairua ordaintzeko emandako COVID laguntzak deritzenak jaso dituzte.

3. Hipoteka-betearazpenak eta maizter-botatzeak


Pandemiaren inpaktua dela eta, igo egin da hipoteka-betearazpenen kopurua, 2019ko minimo historikoen ondoren.

Jaitsi egin zen Euskadiko jabetza-erregistroetan inskribatutako eta martxan jarritako hipoteka-betearazpenen kopurua 2008ko Atzeraldiaz geroztik, eta 2019an 85 betearazpen bakarrik egin ziren.

Baina COVID-19aren krisia eta zenbait faktore judizial zirela medio (Luxenburgoko Justizia Auzitegiaren epaia eta Espainiako Auzitegi

Gorenak hari buruz egindako interpretazioa, non 2019ko Higiezinatarako Kreditu Lege berria aplikatzen baitu), gora egin du berriro hipoteka-betearazpenen kopuruak: **2021ean, 217 egin ziren (2019ko kopurua halako bi eta gehiago, baina 2014ko 358 betearazpenak baino dezente gutxiago).**

8. grafikoa. Jabetza-erregistroetan inskribatutako hipoteka-betearazpenak. 2019-2021




Iturria: EIN

Banku Zentralaren diru-politika hedakorrek bere horretan jarraitu du azken bi urteotan, tasa negatiboetara eraman du Euriborra eta gutxitu egin du zorpetutako familien gastua. Inflazioaren igoerak, berriz, % 6tik gora jarri du KPIa Euskadin eta Espainiako Estatuan 2021aren amaieran (2022ko martxoan, % 9,8an), eta interes-tasa errealak (inflazioa deskontatuta) inoiz ikusi gabeko maila negatiboetara iritsi dira.

Aitzitik, maizter-botatzeen kopuruak nabarmen egin du behera 2020an, eta 2021ean gora egin duen arren, ez da iritsi pandemia aurreko mailara.

Auzitegietan aurkeztutako hipoteka-betearazpenen kopuruak gora egin badu ere, egoera jakin batzuetarako maizter-botatze eta etxegabetze-prozesuak gelditzeak mugatu egin du, **2020an, etxebizitzarik gabe geratzeko arriskuan zeuden familietan krisiak duen inpaktua. 2021ean, ordea, gora egin du berriro maizter-botatzeen kopuruak EAEn, baina ez du apenas gainditu pandemiaren aurreko maila.**


9. grafikoa. Hipoteka-betearazpeneko prozedurekin lotura duten maizter-botatzeak (2019-2021)



Iturria: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia

Gizarte-babeseko sistemari esker, krisiaren inpaktuak ez du nabarmen igoarazi maizter-botatze horien kopurua. Euskadi, Madril eta Nafarroa dira Espainiako Estatuan 10.000 biztanleko maizter-botatze gutxiena egiten dituzten autonomia-erkidegoak.


10. grafikoa. Hipoteka-betearazpenekin lotura duten maizter-botatzeak 10.000 biztanleko, autonomia-erkidegoka



Iturria: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia

Halaber, pandemiaren hasieratik nabarmen egin du behera alokairu-kontratuekin lotura duten maizter-botatzeen kopuruak. 2019an, alokairuko kontratuak zituzten 806 familia utzi zituzten etxerik gabe Euskadin; 2020an, 553ra jaitsi zen kopurua, baina 2021ean berriro egin zuen gora: ehun gehiago, 659 etxegabetze. Edonola ere, pandemia aurreko urteetakoak baino nabarmen apalagoak dira datu horiek.


11. grafikoa. Alokairu-kontratudunen maizter-botatzeak 2019-2021 epean



Iturria: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia

Herri Errentamenduen Legearekin (HEL) lotura duten maizter-botatzeen sailkapenean (hau da, alokairu-kontratua duten familien etxegabeteen kopuruaren sailkapena, 10.000 biztanleko), **Euskadi da eragin erlatibo txikieneko bigarren autonomia-erkidegoa** (hiru maizter-botatze 10.000 biztanleko, Kataluniaren, Valentziako Erkidegoaren eta Balear Uharten herena baino ez).

12. grafikoa. Alokairu-kontratudunen maizter-botatzeak 10.000 biztanleko, autonomia-erkidegoka



Iturria: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia

4. Etxebizitza-politika publikoen erantzuna pandemiaren inpaktua dela eta


Berehalako neurriak —eta esanguratsuak— hartuz erantzun diote politika publikoek krisiari, pandemiaren hasieratik (2020ko apirila eta maiatza). Hori dela eta, gutxitu egin da krisiak gizartean eta talderik ahulenetan —batez ere alokairuko etxebizitzetan bizi direnen artean— eragin duen inpaktua.

Euskadiko etxebizitza-sistemaren abiapuntuko egoera bereziki sendoa izan du oinarri erantzun horrek. Bi ardatz hauek ditu nagusi sistemak:

- alokairuko etxebizitza babestuen parkea
- alokairua ordaintzeko prestazio-sistema zabala

Izan ere, esku-hartze handia du eskaria babesteko politikak alokairuko merkatuan: Euskadiko ia 48.000 familiak jasotzen dute nolabaiteko laguntza edo prestazioren bat alokairu libreko errenta ordaintzeko, alokairua ordaintzeagatik PFEZri aplikatzen zaion kenkariaz aparte.

12. grafikoa. Euskadin diruz lagundutako alokairuko parkearen ehunekoaren zenbatespena, laguntza-motaren eta gastu osoaren arabera. 2020



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza

Laburbilduz, hauek dira azken bi urteotan pandemiaren inpaktu soziala leuntzen lagundu duten etxebizitza-politiken esku-hartze nagusiak:


- Etxebizitza babestuak eraikitzeko inbertitzen jarraitu izana:** alokairuko erregimenean, 26.000 etxebizitzatik gora dira jada, eta 1.400 gehiago egin dira 2020an eta 2021ean, pandemia gorabehera. Eusko Jaurlaritzaren ekimenez egin dira etxe horietako hamarretik zortzi.

b. Euskadiko prestazio sozialen sistema eta diru-sarrerak bermatzekoa, zeinak berariazko bi prestazio baititu alokairuko etxebizitza ordaintzeko. Prestazio horiei esker egin diote aurre krisiaren inpaktuari gizarteko sektorerik ahulenek, bestelako laguntzarik jaso gabe. Hona aipatutako prestazioak: EGPOa (Etxebizitza Gastuetarako Prestazio Osagarria), Euskadiko DSBEari atxikia, eta EPEa (Etxebizitzarako Prestazio

Ekonomikoa), Euskadin alokairuko erregimenean bizi direnei ematen zaiena (250 euro hilean).


b.1. EGPOa: Pandemiaren inpaktua dela eta, gora egin du prestazio hori eskatzen duten herritarren eta familien kopuruak: 34.500 familia onuradun 2021ean (1.700eko igoera, pandemiaren aurretik baino %5,1 familia gehiago).

13. grafikoa. EGPOaren hartzaileak, lurralde historikoka. 2021




Iturria: Lanbide


14. grafikoa. EGPOaren metatutako zenbatekoa, eurotan, lurralde historikoka.



15. grafikoa. EGPOaren bilakaera 2019-2021 epean




Iturria: Lanbide



b.2. EPEa: nabarmen igoko da prestazio hori —zeina Etxebizitzarako Eskubide Subjektiboari loturik baitago— datozen urteotan. **Pandemia**

hasi zenetik, %60 areagotu da prestazio hori jasotzen dutenen portzentajea, eta gaur egun 1.573 herritar eta familia dira haren onuradun.


16. grafikoa. EPE-en bilakaera 2019-2021 epean



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza

c. Gizarte Larrialdietarako Laguntzak: hasieran —2020an— indar handiz nabarmendu zen pandemiaren inpaktua **alokairuetarako Gizarte Larrialdietarako Laguntzetan, udaletako gizarte-zerbitzuek kudeatzen dituztenetan** (ez dago 2021eko daturik). Zerbitzu horiek izan ziren erreferentziako leihatila pandemiak kaltetutako familientzat (**4.500 familia gehiago bihurtu ziren laguntzen onuradun, % 56 gehiago**).


17. grafikoa. Alokairua ordaintzeko Gizarte Larrialdietarako Laguntzak. 2019-2020



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza

d. Gaztelagun: 2019tik, areagotu egin da 35 urtetik beherako gazteei alokairua ordaintzen laguntzen dien Gaztelagun programaren onuradunen kopurua ere: **2021ean, ia 3.000 ziren, 2019an halako bi kasik**. Hamar milioi euro gastatu ditu programak azken hiru urteotan. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza

18. grafikoa Gaztelagun. Herritar onuradunak. 2019-2021




Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza

e. Eusko Jaurlaritzaren COVID laguntzak

Hor daude, bestalde, pandemia hasi orduko Eusko Jaurlaritzak martxan jarritako COVID laguntzak ere. Honetarako erabili dira laguntza horiek: ordura arte prestazio horien ohiko onuradun ez ziren baina krisiak enplegurik gabe utzi zituen familiak alokairua ordain zezaten. Martxan jarri zirenetik, ia sei mila familiak jaso dituzte laguntza horiek. Bestalde, 1.400 familiak eskuratu zuten alokairuko etxebizitza babestuko parkearen ordaintzeko salbuespena. Ia 1.400 milioi euro erabili ziren programa horretarako.

19. grafikoa. Eusko Jaurlaritzaren alokairurako COVID laguntzak. 2020-2021



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza

5. Ondorioak

- Funtsezkoak izan dira politika publikoak krisiari aurre egiteko, pandemiaren olatuek eragindako murrizketen inpaktu sozial eta ekonomikoa leuntzeko.
- Enpleguaren aldeko tresnak eraginkorrak izan dira enpleguaren jaitsiera saihesteko eta krisiaren eragin sozialak murrizteko, batez ere ABEEEak. **EAEko lau langiletik bat egon da enpleguaren erregulazio-espeditente mota berri horren babespean, eta horri esker jarraitu dute enplegua edukitzen eta soldata jasotzen lantokietara joan gabe, eta horri esker saihestu da ekonomiaren beste atzeraldi bat hurrengo urteotarako.**
- ABEEE-ei esker, azkar asko berreskuratu zen 2021ean galdutako enpleguaren parte bat, nahiz eta biztanleria landuna dezente murriztu zen 2020an, batez ere ABEEEak eskuratu ezin zituzten aldi baterako enplegudun langileen artean. **2021aren amaieran, ia pandemia aurreko mailara itzulia zen EAEko biztanleria landunaren kopurua.**
- ABEEE-ek ez ezik, **Euskadiko prestazio eta gizarte-laguntzen sistema zabalak ere pandemiaren hasieratik erantzun diete gizarteko sektorerik ahulenen premiazko beharrei, batez ere alokairuko erregimenean bizi dirennei.**
- **Alokairua ordaintzeko laguntzei dagokienez, ia 45.000 familiak jaso zituzten 2020an, hau da, Euskadin alokairu-erregimenean bizi diren herritar eta familien erdiak ia.** Beste inongo adierazlek baino hobeto erakusten du datu horrek alokairuko etxebizitzaren merkatuan administrazio publikoak duen esku-hartze maila altua, bai eta erregimen horretako familia askoren ahulezia ekonomikoa ere.
- **Laguntza-sistema hori gorabehera, 2019tik hona gora egin du Euskadin hipoteka-betearazpenen eta maizter-botatze judizialen kopuruak, aurreko urteetan nabarmen behera egin ondoren. Hala eta guztiz ere, Espainiako Estatuko autonomia-erkidegoen artean, kopuru txikienetakoa zuen Euskadik 2021ean.**
- **2020ko apirilaz geroztik, diru-sarrerak bermatzeko DSBEari eta EGPOari esker egin zaio aurre krisiaren inpaktuari: 35.000 herritar eta familiak baino gehiagok jaso dute alokairua ordaintzeko laguntza horietakoren bat azken bi urteotan, pandemiaren aurretik baino % 3 gehiagok. EPEaren onuradun diren familien kopurua, berriz, 1.500era iritsi da (2019an baino % 50 gehiago).**
- Bereziki aipagarriak dira, bestalde, pandemiaren ondorioei aurre egiteko guztiz eraginkorrak izan diren premiazko bi tresna-motak.

- Pandemiaren lehenbiziko hilabeteetan hasi ziren banatzen Eusko Jaurlaritzaren COVID laguntzak. Normalean diru-sarrerak bermatzeko sistemaren onuradun ez diren eta alokairu libreko erregimenean bizi diren 6.000 familiak jaso ditu laguntza horiek. Alokairuko etxebizitzaren errenta ordaintzetik salbuetsitako familiak, berriz, 1.400 izan dira, eta 1,4 milioi eurokoa izan da Eusko Jaurlaritzaren errenta horiengatik ordaindutako zenbatekoa.
- Udaletako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek, berriz, Gizarte Larrialdiko Laguntzetara bideratu dituzte alokairua ordaindu ezin zuten familiarik gehienak. 2020an, 12.000 familiak baino gehiagok eskuratu zuten laguntza hori.
- Gaztelagun egiturazko programa bihurtu da, eta alokairuko erregimenean bizi nahi duten gazteen emantzipazio-prozesuei laguntzen jarraituko du datozen urteotan ere. Asko hazi da programa hori azkeneko bi urteotan, eta EAeko ia hiru mila gazteren emantzipazio-prozesuak sustatu ditu, alokairuak ordaintzeko laguntzen bidez. Honenbestez, normalean alokairua ordaintzeko prestazio- eta laguntza-sistemaren onuradun ziren familiez gain beste 15.000 jaso dituzte pandemiaren aurretik indarrean zeuden laguntzak eta haren ondorioei aurre egiteko berriaz sortu zirenak.